

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLA

**Hiri-hondakin solidoak biltzeko zerbitzua emateagatiko 2026ko tasaren erroldak, Arraia-Maeztu, Bernedo, Kanpezu, Lagrán, Peñacerrada-Urizaharra eta Harana udalerrietan. Behin-behineko onarpena eta borondatezko epean kobratzea**

Arabako Mendialdeko Kuadrillako Batzarrak 2026ko maiatzaren 28an egindako bilkuran onartu zuen Arraia-Maeztu, Bernedo, Kanpezu, Lagrán, Peñacerrada-Urizaharra eta Harana udalerrietan 2026rako hiri-hondakin solidoak biltzeko zerbitzua emateagatiko tasaren kotizaziopeko errolda. Beraz, jendaurrean jarriko da, 15 egun balioduneko epean, ebazpen hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, egoki irizitako oharrak eta erreklamazioak egin ahal izateko.

Interesdunek espedientea aztertu ahal izango dute Arabako Mendialdeko Koadrilaren egoitzan (Gasteiz - Lizarra 7, Santikurutze Kanpezu, Araba), 9:00etatik 14:00etara.

Zerga ordaindu behar dutenen errolda jendaurrean jartzean, errolda osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, halaxe xedatzen baitu Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 98. artikuluan 3. paragrafoan. Dena den, interesdunek esleitu zaizkien kuoten aurkako berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaioke kuadrillako lehendakariari, ordaintzeko araututako epean edo epe hori bukatu eta hilabete igaro baino lehen.

Tasa horren ordainagiriak borondatezko epean kobratuko dira, 2026ko uztailaren 20tik irailaren 18ra bitarteko egun baliodunetan, biak barne. Helbideratutako ordainagiriak 2026ko uztailaren 27an igorriko dira.

Ordaintzeko lekua eta modua. Ordainketa aurreko urteetan helbideratuta dutenek ez dute inolako kudeaketarik egin beharko banku-helbideratzearen kontua mantentzen badute edo helbideratzearen aldaketa jakinarazi badute. Kuadrilla arduratuko da ordainketa borondatezko epearen barruan izapidetzeaz.

Era berean, Eusko Jaurlaritzaren ordainketa-pasabidearen bidez ere ordaindu ahal izango da: <https://www.euskadi.eus/y22-pay/es/p12uiPaymentWar/p12uiRPCDispatcherServlet>.

Ordainketa helbideratuta ez dutenek Kutxabanken, Laboral Kutxan edo Nafarroako Landa Kutxan egin ahal izango dute borondatez, banku-entitate horiek irekita dauden ordutegian, etxean jasoko duten abisu-ordainagiria aurkeztuta. Abisu-agiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, bi ale emango dira koadrilako administrazio-bulegoetan (Santikurutze Kanpezun, Gasteiz-Lizarra errepidea 7).

Borondatezko epea igaro eta ordainketa egin ez bada, premiamendu-bidez kobratuko da, dagokion errekgua aplikatuta, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Guztiak jakin dezaten ematen da horren berri.

Santikurutze Kanpezun, 2026ko ekainaren 11n

*Presidentea*

**EDUARDO RUIZ DE LOIZAGA SANZ**